

KAXKAPEKO GILTZAREN ERABILERA

Kaxkape Zubietako herritar guztion erabilerarako lokala izanik, zaintzarako hainbat jarraibide eta arau adostu ditugu. Errespetuzko elkarbizitzaren mesedetan, erabilera markoa eta giltza jabe ororen erantzukizun markoa jaso nahi izan ditugu dokumentu honetan.

AISIALDI ARAUTUAK lehentasuna izango du AISIALDI LIBREAREN aurrean.

- AISIALDI ARAUTUA:
 - Urte osoko ikastaro eta tailerrak.
 - Herriko eragileen bilerak
- AISIALDI LIBREA
 - Eskerak iristen diren hurrenkeran onartuko dira.
 - Erreserbak Herri Batzarrari eskaera eginda (whatsapp/email) edota eragileen kasuan Team-up aplikazio bidez egin ahal izango dira.
- AISIALDI LIBREA
 - Herriko jaietan Kaxkape aisaldi librerako itxita egongo da.

ORDUTEGIA

- Igandetik ostegunera: 08:00-22:00
- Ostiral eta larunbatetan: 08:00-00:00.

ERRESERBAK

- Zuzenean aplikaziotik erreserbatu ahal izango dugu, gela libre badago
- 3 gela/gune erreserba daitezke:
 - Beheko eremua
 - Goiko eremu irekia
 - Goiko gela txikia

KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

Herri batzarrera jo ezazue edozein kezka, proposamen edo ezbeharren aurrean (zerbait hondatu bada, erabilera desegokia egin dela jakinez gero, erabilera librea baldintzatzen duen portaera desegokia badago, hobekuntzak proposatu nahi baditugu, baliabide berriak behar baditugu...)

- Email bidez: herribatzarra@gmail.com
- Telefonoz/Whatsapez: 616 324 878

Nik, _____-(e)k, adinez nagusi naizenak, segidan jasotako arauak beteko ditudala ziurtatzen dut.

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

Emaila: _____

Sinadura:

Giltza pertsonala edo familiarra da eta ezin zaio beste inori utzi.

1. ZAINITZA

- Baloi eta pilotarik ezin da erabili.
- Bertako tresneria hondatu dezakeen jarduerarik ezin da egin
- Bertako gauzak gureak balira bezala zaindu.

- Erabilitako tresnak dagozkien lekuan utzi.
- Zerbait bere lekutik kanpo ikusiz gero, jaso
- Argia eta kalefakzioa itzali irten aurretik.

2. JANARIA ETA EDARIA

- Alkoholik ezin da edan.
- Baimendutako janaria: bertan har daitezkeenak (kafea, txokolatea...), eta baita etxeko meriendak ere (txorixo bokata,...).
- Debekatutakoa: kozinatutako janariak ezin dira jan, hau da, pizzak, kebab, paella,...
- Urtebetetze merendolarik ezin da egin.

3. HONDAKINAK ETA GARBITASUNA

- Kanpoan gaikako edukiontziak jarriko dira. Bakoitzak bere zaborra kanpora atera beharko du.
- Zerbait zikinduz gero, garbitu egingo da. Horretarako garbiketara kit bat jarriko da: erratza, fregona, fregona kuboak, baietak... Kaxkape barruan urik ez dagoenez kanpoko komunak baliatu beharko dira.

4. ERRESPETUZKO HARREMANAK ERAIKI

- Gune bakoitzeko erabiltzaileek kontuan izan beharko dute beste guneetako erabilera.
- Antolatutako eta erreserbatutako ekitaldiez kanpo, Kaxkapek erabilera publikoa izango du.
- Botere harremanak saihestuko ditugu (ezin da inor kanporatu gazteagoa, ahulagoa... delako)
- Bizilagunen ongizatea errespetatzeko jarrera izango dugu.

Arau hauste edo erabilera desegokia eginez gero, Herri Batzarrak erabakiko du zein neurri hartu.
